



Petronorrek Europaren babesa lortu du 100 MWeko elektrolizagailuaren proiekturako

- **Europako Batzordeak Repsolek eta Petronorrek aurkeztutako ‘Bay of Biscay Hydrogen’ proiektua aukeratu du, “Europako interes komunekin proiektu garrantzitsuak (IPCEI)” deritzen ekimenen artean.**
- **IPCEI zigiluaz nabarmendutako europar proiektu guztien artean 5.200 milioi euro ere jaso ahal izango dituzte laguntza publikoetan, garatzeko eta abian jartzeko.**
- **100 MWeko elektrolizagailu honek ekoiztutako hidrogeno berriztagarria Bilboko Portuaren eta Ezkerraldearen inguruko industria-kontsumitzaile handiak deskarbonizatzeko erabiliko da.**
- **Elektrolizagailuak mugikortasuna deskarbonizatzeko aplikazioetarako eta garraio astunerako hidrogeno berriztagarria ere sortuko du.**
- **Petronorren proiektua diseinu eta garapen aldiaren dago egun Alba filialaren bitartez, eta instalazioen eraikuntza-lanak 2023an hasiko dira aurreikuspenen arabera.**

Muskizen, 2022ko irailaren 21ean. Petronorrek Europako funtsak jasoko ditu hidrogeno berriztagarria ekoiztuko duen 100 MWeko instalazioa abian jartzeko. Repsolek eta Petronorrek aurkeztutako ‘Bay of Biscay Hydrogen’ elektrolizagailuaren proiektua “Europako interes komunekin proiektu garrantzitsua (IPCEI)” da Europako Batzordearen esanetan. IPCEI zigilua lortu izanak berealdiko bultzada eman dio Petronorrek Euskadin hidrogeno berriztagarria garatzeko abian duen prozesuari.

Hau da Estatu osoan onartu diren 7 proiektuetako bat, eta guztien artean, 5.200 milioi euro ere jaso ahal izango dituzte laguntza publikoetan martxan jarri ahal izateko. Repsolen eta Petronorren ekimenak hidrogeno berriztagarria ekoizteko 100 MWeko instalazio baten garapena, eraikuntza eta eragiketa aurreikusi ditu. Instalazio honen ekoizpena Bilboko Portuaren, Ezkerraldearen eta gertuko eremu geografikoaren



inguruan dauden industria-kontsumitzaile handiak deskarbonizatzeko erabiliko da, haien deskarbonizazio-prozesuetan aurrerapausoak emateko aukera izan dezaten. Gainera, penintsulako parke berriztagarrietako energia elektrikoaren bidez sortutako tokiko hidrogeno berriztagarriaren ekoizpenari esker, energia-horniduraren segurtasuna areagotu ahal izango zaie energia horretaz baliatzen diren kontsumitzaile guztiei.

Proiektua diseinu eta garapen aldian dago egun, eta instalazioa 2023an eraikitzen hasi eta 2024ko bigarren erdialdean jardunean izango dela aurreikusi da. Elektrolizagailu honek hidrogeno berriztagarria sortuko du mugikortasuna deskarbonizatzeko aplikazioetarako eta garraio astunerako, Ezkerraldea-Meatzaldea Teknologia Parkeko Energy Intelligence Centerren luze gabe instalatu eta ekoizpen-instalazioarekin zuzenean lotuta egongo diren azpiegituren bitartez.

“Bay of Biscay Hydrogen” ekimenak funtsezko garrantzia du Hidrogenoaren Euskal Korridorearen (BH2C) garapenerako. Petronor buru duen partzuergo honek 80 erakunde biltzen ditu, Euskadin hidrogeno deskarbonizatuaren ekonomia sustatzeko helburuaren inguruan. Hartara, ekoizpenean ez ezik, balio-kate osoaren garapenean ere eragiten du, hidrogeno berriztagarriak trantsizio energetikoan dakarren garapen ekonomiko eta industrialerako aukera erakartzeko asmoz. Proiektu hau da, hain zuzen ere, Petronorren plan estrategikoan, Alba filialaren bitartez, deskarbonizatorantz eta trantsizio energetikorantzko jotzeko aurreiku diren ekimen nagusietako bat.

www.petronor.com

VK Comunicación

Informazio gehiago:

Virginia Knörr Barandiaran
944 01 53 06 / 629 156 031
virginia@vkcomunicacion.com